

## GIZARTE-EKINTZA

Gaurko egunean Sailarekin izandako bileraren ondoren, 2020ko Gizarte Ekintzari buruzko datuak ditugu..

ESKAERAK	
<b>AURKEZTUAK</b>	<b>71</b>
<b>EMAN DIRA</b>	<b>47</b>
Dentista	37
Optika	3
Dentista/optikaria	4
Esku-hartzea	2
Emankortasuna	1

EMANDAKOAK	
2021-09-10eko Ebazpenean onartuak	40
Zuzentzeko eskatutakoak	7

BAZTERTUAK	
Ez onartuak 2021-09-10eko Ebazpenean	20
Atzera egindakoa, 0 ez zuzentzeagatik	0
Behar ez bezala zuzentzeagatik atzera egindakoak	3
Kaltearen azpiko kopurua	1

<b>LAGUNTZAK</b>		
Zebateko erabilgarria		50.000€
	Gutxi gorabeherako kopurua, guztira*	Ordaindu beharrekoa, guztira
5 Laguntzak 3.000€baino gehiago	73.257,62€	15.000€
42 Laguntzak 3.000€baino gutxiago	105.838,29€	35.000€
<b>GUZTIRA</b>	179.095,91€	50.000€

\*Zenbatetsitako kopurua=kontuan hartutako kantitatea-kalte-ordaintzailea-MUJEJU laguntzak

Ebazpena datorren astean argitaratuko da. Ordainketa azaroko nominan egitea aurreikusten da, errekursoren bat aurkezten ez bada behintzat, eta horrek ordainketa abenduko nominara atzeratuko luke

Hurrengo deialdirako, oraingo deialdian planteatu zaizkigun bi gairen eztabaida falta da. Alde batetik, atzerriko hizkuntzetan aurkezten diren fakturak onartzea; eta, bestetik, bi sindikatuk planteatutako gaia, 3.000 euroko gehieneko muga murrizteari buruzkoa.

Eskuragarri dagoen zenbatekoaren igoerari dagokionez, baieztatu zaigu datorren urteko deialdirako aurrekontuen zirriborroan % 20ko igoera sartu dela egungo guztizkoaren gainean, hau da, Gizarte Ekintzako Funtsa 60.000 €-tan geratuko litzateke. Gure alegazioetan, LABek jada erreklamatu zuen zenbatekoa 2011. urteaz geroztik geldirik egoteak IV. Akordioa ez betetzea zekarrela. Akordio horrek 41.1 artikuluan jasotzen du 63.502 euroko Gizarte Funtsa eratu dela Gizarte Ekintzako laguntzetarako. Gainera, kopuru hori eguneratu egin beharko da funtsa sortu zenetik KPlak izan dituen igoeren arabera, edo, gutxienez, data horretatik aurrera izan dituen soldata-igoeren arabera.

Deialdi honetan eskatu dugu, halaber, banandutako/dibortziazatutako bikoteen kasuan mantenu-pentsioan ordainketarik ez dagoenez, ez ordaintzearen justifikazioa nahikoa izan behar dela laguntza emateko.

2016ko Gizarte Ekintzatik mendekotasunarekin lotutako laguntzak sartzeari eskatzen ari gara, desgaitasuna duten pertsonen arretarekin egiten den bezala. Berrito diogu mendetasuna aitortu beharreko errealitate soziala dela, are gehiago gizartearen bizi-itxaropenaren gorakadarekin, eta, beraz, kasuak gero eta ohikoagoak dira. LABek borrokan jarraituko du hurrengo deialdietan mendekotasuna Gizarte Ekintzaren laguntzaren xede gisa jasoko duen artikulua bat sar dadin.

**2021-10-14**

